# OKENDO PLAZA HIRI MULTZOA
**A MAILA**





**Deskribapena**
Ingurune honek ordezkatu egin zuen Kortazarren zabalgunerako planean aurreikusitako Santa Katalinako lorategi lineala, Santa Katalinaren fatxada zeiharrarekin lerrokatutakoa; ekialdeko zabalgunea garatzean, 1880 ezkero, hormaren bideratze berriak bilbearen gainerakoaren lerrokadura ortogonala berreskuratu zuenean. Multzo hau ondoko elementuek osatzen dute: Victoria Eugenia antzokia, Maria Cristina hotela; Okendo almirantearen omenezko eskultura eta multzoaren parte den ingurunean kokatutako espazioa.

**Babes erregimena**

* Erregimen orokorra:

  Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
* Berariazko erregimena:
  “Santiago bidea” multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa, halakotzat deklaratu baitzuten 2012ko urtarrilaren 27ko EHAAn argitaratuko dekretuan.
  Okendo plaza multzoari atxikitako elementu indibidualak honako hauek dira:
  * Maria Cristina hotela.
  * Victoria Eugenia antzokia.
  * Okendo almirantearen omenezko eskultura.

Udal Artxiboko espedientea: --
Ondare historiko-arkitektonikoaren behin-behineko inbentarioa (Eusko Jaurlaritza): E0050